



**A) BEZaren araudia eta aldaketak:**

2010eko Estatuko Aurrekontu Orokorren 2009ko abenduaren 24ko 26/2009 Legeak aldaketak ekarri ditu Balio Erantsiaren Zergaren Legean eta Ez Egoiliarren Errentaren Gaineko Zergan. Zehazki, nabarmentzekoa da Balio Erantsiaren Zergaren zerga-tasa orokorra eta murriztua igo egingo direla; ehuneko 16 eta 7tik 18 eta 8ra, hain zuzen.

**B) Euskaltelen izango duen eragina, praktikan**

1. Ekaineko faktura (2010eko uztailaren 3an igorriko da), honela aplikatuko da:

a) Bezeroari modu jarraituan ematen zaizkion zerbitzuetan BEZ berria ezarriko da (% 8 edo % 18), legeak adierazten duelako fakturaren ordainketa-datan dagokion BEZa ezarri behar dela ; uztailaren 21a izango da egun hori, eta ordurako indarrean egongo dira tasa berriak.

- ✓ BEZa: % 18:
  - o Telefonía finkoa, mugikorra, Banda Zabala eta Internet zerbitzuetako kuotak eta kontsumoak.
  - o Aurreko kontsumoak eta kuotak (martxokoak, apirilkoak edo maiatzekoak), fakturan datozenak.
  - o Ekipamenduaren aldiari alokairuak

- ✓ BEZa: % 8:
  - o Telebista Digitaleko pay per view ikuskizunen kuotak eta kontsumoak.

b) Uztailaren 1a baino lehen egindako ondasun-entregi edo emandako zerbitzuei BEZ tasa zaharra ezarriko zaie (% 7 edo % 16), legearen arabera, ekipoa entregatutako datan edo zerbitzu jakin bat emandakoan dagokion BEZa ezarri behar delako .

- ✓ % 16ko BEZa, kontzeptu hauei:
  - o Ekipoen salmenta: terminal mugikorrek, deskodetzaileak, set top box...
  - o Instalazioak, hartune gehigarriak, joan-etorrien kostuak...
  - o Fakturan sartzeko aurrez ordaintzeko edozein kargatze-mota, uztailaren 1a baino lehen egindakoa, bai mugikorrek, bai Banda Zabalekoa.

2. Uztaileko eta ondorengo fakturretan, tasa hauek ezarriko dira:

- ✓ % 18ko BEZa, kontzeptu hauei:
  - o Telefonía finkoa, mugikorra, Banda Zabala eta Internet zerbitzuetako kuotak eta kontsumoak.
  - o Ekipoen salmenta: terminal mugikorrek, deskodetzaileak, set top box...
  - o Instalazioak, hartune gehigarriak
  - o Fakturan sartzeko aurrez ordaintzeko modalitateko kargatzeak

- ✓ % 8ko BEZa, kontzeptu hauei:
  - o Telebista Digitaleko pay per view ikuskizunen kuotak eta kontsumoak.